



HEZKUNTZA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

Hutsen zuzenketa, honako ebazpen honena: ebazpena, 2021eko maiatzaren 13koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez dei egiten baita lanpostu batzuk zerbitzu-eginkizunen erregimenean edo, hala badagokio, behin-behineko esleipenean betetzeko, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin zerbitzuak emateko 2021/2022 ikasturtean.

Corrección de errores de la Resolución de 13 de mayo 2021, de la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación, por la que se convocan para su cobertura, en régimen de comisión de servicios o asignación provisional, en su caso, diversos puestos para prestar servicios con alumnado con Necesidades Educativas Especiales durante el curso escolar 2021/2022.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko maiatzaren 13ko Ebazpenaren bidez, 2021/2022 ikasturtean Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleekin lan egiteko zenbait lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo, hala badagokio, behin-behineko esleipenean betetzeko deialdia argitaratu zen.

Mediante Resolución de 13 de mayo de 2021, de la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación, se publicó la convocatoria para la cobertura, en régimen de comisión de servicios o asignación provisional, en su caso, diversos puestos para prestar servicios con alumnado con Necesidades Educativas Especiales durante el curso escolar 2021/2022.

Hutsak aurkitu dira I. eranskinen b apartatuan, eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, zuzenketa hau egin behar da:

Advertidos errores en el apartado B del Anexo I, y de conformidad con lo establecido en el artículo 109.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, procede la siguiente corrección:

Bakarra.- Berritzeguneetako Hezkuntza Premia Berezien Aholkularitzako lanpostu guztietan, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostuen zerrenda onartzen duen otsailaren 17ko 41/2009 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, honako eskakizun hau gehitzea:

Única.- Añadir en todas las plazas de Asesoría de Necesidades Educativas Especiales en Berritzegunes, de conformidad con lo previsto en el Decreto 41/2009, de 17 de febrero, por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo de los Centros de Apoyo a la Formación e Innovación Educativa (Berritzegunes), el siguiente requisito:

"3 urteko esperientzia Hezkuntza Berezian."

"3 años de experiencia en Educación Especial."

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 17an

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL

